

euskara batuaren beharra



Euskaldun guztion mintzabide eta idazbide batu bat behar dugu.

Hamar urte igaro dira Euskaltzaindiak bere VIIgarren Biltzarra ospatu zuenetik; hamar urte igaro dira beraz Euskararen Batasuna gai nagusitzat hartua izan zenetik, eta ederki ongi igaroak, bai. Eta lehen ziklo honi amaiera emateko VIIgarren Biltzarra ospatu nahi izan du Euskaltzaindiak berak proposatutako "hizkuntz gomendioak" idazteko arauak batez ere— noraino Herriak onhartzen zituen eta zein puntutaraino funtsezkoak bilakatzen ziren ikus ahal izateko. Bergarako Biltzarrean parte hartu dugunok Euskararen Batasuna auzi luzeazina dela konturatu gara. Luzeazina, bai, zeren eta Euskal Herriak idazbide eta mintzabide batu edo bateratsu bat behar baitu etorki, jatorri, eskualde eta euskalki orotako Euskaldunek elkar uler dezaten, eta honek, noski, ezin du gehiago itxoin. Egia esan, agian, orain arte plazaratua izan den Euskara Batuaren oinarriak eta xedeak ez dira "tako" gehiegiz azalduak zenbait euskal sektoreri begira. Egia osoa esateko ere, apika, euskal sektore hauk ez dira gehiegi arduratu— behar bada konturatu ere ez— euskarak behar duen batasunaz— ez dut orain ezer esaten zer— nolako batasunaz— herri eta toki guztietako euskaldunek elkar konpreni dezagun.

Garaia da, ene ustez, eta behin betiko, Euskara Batuaren zergaitiak, oinarriak eta xedeak— ez noski beronen soluzio eta irtenbideak neri ez baitagokit honelako auzitan ezer esatea— argi eta garbi agertzea, baina hori bai, errespetu osoz eta inor mindu nahi gabe eta are guttiago gutietsi nahi.

Azkeneko urteotan arrazoin

ugarri entzun ahal izan dugu euskara batuaren alde: estatu moderno orotan hizkuntz batasunak kultur aurrerabide eta giza -oinarri ukaezinezko bat suposatu duela: Euskal Herri baturik ez dugu lor ahal izango hizkuntzaren arloan aldez aurretik batasuna lortzen ez badugu; euskara bat ez dagoela euskara batzu baizik, beraz euskaraok beroien horretan utziko bagenitu fosilaks besterik ez liriteke bilakatuko urteren buruan; euskalkiek berez ez baitute etorkizun handirik alde batetik, eta herrialde bakoitzeko mintzaira ez baita gauza euskaldun guztion mintzabide eta idazbide bilakatzeko e.a. Hirugarren arrazoin hau gehiago zehaztea eta komentatzea komeni zaio bati baino gehiagori agian. Koldo Mitxelena berak Arantzazuko Txosten famatu hartan puntu honi zegokiola hauxe bera zioen: "Beraz, noski, hobe litzateke besterik: euskaldun bakoitzak, alegia, euskalkiak oro ezagutzea, hangoak eta hemengoak, antzinakoak eta oraingoak. Agerian dago, haatik, ezin eska dakiokela horrelakorik euskalari bati baizik. Honek berak ere aski du gehienetan berak ez dituen euskalkiak, euskalduna baldin bada, ulertzearekin. Ez da gai izaten beste euskalkiz mintzatzeko, ahoz nahiz izkribuz". Hemen dago hauziaren kakoa! Hobe bai litzateke besterik, baina...

Euskaldunak eskolatugabeko gizakumeak izan gara oraintsu arte, geure euskara bera ere bigarren hizkuntza bilakatu zaigularik kasu gehienetan, zoritxarrez. Noski euskalkiek badutela aberastasunik, bai halaber eskubiderik zutik irauteko, are gehiago, euskalkiak ez dira hain erraz

desagertuko— desagertuko baldin badira. Problema, ene ustez, bestea da: euskaldun guztion mintzabide eta idazbide batu edo bateratsu bat behar dugu, ELKARREN ARTEAN ULER DEZAGUN.

Euskalkiak ezin daitezke elkarrengandik gehiago urrun, bai ordea elkargana hurbil, ahal daitekeen neurrian bederen. Lan hori ekitea ez litzaiguke batere kaltegarri gertatu.

Gipuzkoarrak garela? bego; bizkaitarrak, bego ere; lapurtarrak,? bego berriro ere..., baina aurrez aurretik Euskaldunak gara, eta behar denean amore eman behar diogu gure territorialismoari, sakonagoa den nortasunari gehiago eta sendoago lotzeko.

Oraingo honetan ez gara luzeago mintzatzeko; euskara batuaren beharra azaldu nahi izan dugu soilik.

Halaz eta guztiz ere badira zenbait euskaldun Euskara Batuaren "engendroa" onartuko ez dutenak. Bego ere bai. Burura datorkit Bergarako Biltzarrean partaide baten galdera (euskaltzainen mahiari). "Eta euskara batuaz idatziko ez dugunean zer esango du Euskaltzaindiak, zer jokabide hartuko du?" (hauxe zen galdera, gutti gora behera). Mahaikoez ez zioten erantzun, bai ordea beste partaideren batek. Ez dut uste nik Euskaltzaindiak inolako neurriki hartu beharko duenik. Neurri eta legeugarri ditugu gure Herrian gehiago edukitzeko. Gainera, gure herrian zerbait maitatzen badugu askatasuna da, beraz beraientzat ere tokirik badugu Euskal Herrian, noski baietz.

J.L. ALVAREZ